

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5094

IRAGARKIA, 267/2021 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (prozedura laburtua) interesa izan dezaketenak epatzeko dena.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegian, Usua Claramunt Olasagastik administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri du –zehazki, 267/2021 prozedura laburtuaren iza-pideen ondoriozko auzi-errekurtso bat–, Osakidetzaren zuzendari nagusiaren urriaren 22ko 1177/2020 Ebazpenaren aurka. Ebazpen horren bidez argitaratu ziren Erizaina kategorian hauta-tutako izangaien behin betiko zerrenda eta txanda ireki bidezko esleipena, destinoa Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan izanik.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, epatu egiten dira interesa izan dezaketen hirugarrenak eta jakina-razi egiten zaie prozedura judizialean agertu eta bertaratu daitezkeela, bederatzi eguneko epean, iragarki hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren interesdun posibleak ezezagunak direnez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan ezarritakoa betetzeko, iragarki hau argitaratzen da.

Jakinarazpen honek Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 14a.

Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea,
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.